



FINANTZA ZUZENBIDEA

BERRIKUSPEN PROZEDURA BEREZIAK

Irene SUBERBIOLA GARBIZU

AURKIBIDEA: I. Sarrera.- II. Zuzenbidean erabat deusezak diren egintzen berrikuspena. III. Egintza deuseztagarrien kaltegarritasunaren adierazpena. IV. Ezeztatpena edo errebokazioa. V. Akats zuzenketa. VI. Bidegabeko sarrerren itzulketa. VII. Laburpen taula

I. Sarrera

Zergak aplikatzeko egintza eta jarduketa eta zerga-zehapenak ezartzeko egintzak berrikusteko dauden moduen artean, erreklamazio ekonomiko administratibo eta berraztertze errekursoarekin batera berrikuspen prozedura bereziak ditugu. Tributu Foru Arau Orokorrak 5 berrikuspen prozedura berezi arautzen ditu hurrenez-hurren: erabat deusezak diren egintzen berrikuspena; egintza deuseztagarrien kaltegarritasunezko deklarazioa; errebokazioa; okerren zuzenketa, eta, azkenik bidegabeko sarrerren itzulketa. Azter ditzagun banan-banan.

II. Zuzenbidean erabat deusezak diren egintzen berrikuspena

Zuzenbidean erabat deusezak kalifikatu ahal izango dira zerga arloan emandako egintzak eta auzitegi ekonomiko-administratiboaren ebazpenak, administrazio-bidea agortu edo epe barruan errekurtsua jarri ez denean, honako kasuetan:

- Konstituzioaren babespean egon daitezkeen eskubide eta askatasunei kalte egiten dietenean.
- Gaia edo lurraldea dela-eta nabarmenki eskumenik ez duen organoak eman dituztenean.
- Eduki ezinezkoa dutenean.
- Urraketa penala direnean edo horren ondorioz ematen direnean.
- Horretarako lege jasotako prozedura edo organo kolegiatuen borondatea osatzeko funtsezko erregelak dituzten arauak erabat baztertuta eman direnean.
- Lege antolamenduaren aurkako egintza espresuak eta ustezkoak, baldin eta horien bitartez ahalmen edo eskubideak eskuratzen badira, horiek eskuratzeko funtsezko beharkizunak betetzen ez direnean.
- Foru arau edo lege batean espresuki jasotzen den beste edozein kasutan.

Deuseztasuna deklaratzeko prozedura bi modutan hasi ahal izango da, batetik egintza eman zuen organoaren edo goragoko baten erabakiaren bidez, bestetik interesdunak hala eskatu duelako.



I. Irakasgaiak

Azken hau gertatzen denean, bidezko arrazoiak emanez interesdunek egindako eskabideak ez izapidetzea erabaki ahal izango da egintza ez denean irmoa administrazio-bidean, eskabidea ez denean deuseztasunerako arrazoietan oinarritzen edo modu nabarian oinarririk ez duenean, baita edukiari dagokionez antzeko eskabideak aurretiaz ukatu direnean ere.

Prozeduran, interesdunari entzunaldia eman eta egintzaren bidez eskubideak aintzatetsi zaizkienei entzungo zaie, baita azken horren bidez beraien interesetan kalteak jasan dituztenei ere. Edozein kasutan, deuseztasunaren gaineko deklarazioak, aurretiaz, aholkularitza juridikoaz arduratu den organoaren aldeko txostena beharko du.

Prozedura honen ebazpena ematea, baldin eta egintzaren xedea bere eskumenen barruan sartzen bada, Foru Aldundiari dagokio. Horretarako, Berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea urtebetekoa izango da, interesdunak eskabidea aurkezten duenetik edo prozedura ofizios hasi dela jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita. Urte beteko epe hori berariazko ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada, honako ondoreak sortuko dira:

- Ofizios hasitako prozedura iraungi egingo da; baina horrek ez du eragotziko gero beste prozedura bat hasteko aukera.
- Prozedura interesdunaren eskariz hasi bada, Administrazioaren isiltasunez eskabidea ezetsiko da.

Edonola ere, berariazko zein ustezko ebazpenak edo interesdunen eskabideak ez izapidetzeko erabakiak agortuko du administrazio-bidea.

III. Egintza deuseztagarrien kaltegarritasunaren adierazpena

Zerga Administrazioak bere egintza eta ebazpenak herri onurarako kaltegarriak direla adierazi ahal izango du, nahiz eta interesdunentzat onuragarriak izan, baldin eta lege antolamenduaren edozein motatako urraketa badakarte, geroago administrazioarekiko auzien bidea haien aurka erabiltzeko asmoz.

Kaltegarritasunezko deklarazioa ezin izango da egin administrazio-egintza jakinarazi zenetik lau urte igaro badira, hau da, preskripzio epearen barruan egin behar da. Gainera, prozeduran interesdun gisa agertzen diren guztiei aurretiaz entzutea eskatuko du.

Foru Aldundiari dagokio prozedura honen ebazpena ematea, baldin eta egintzaren xedea bere eskumenen barruan sartzen bada. Prozedura hasi zenetik sei hilabeteko epea igaro bada eta oraindik ez bada kaltegarritasunaren deklarazioa eman, berau iraungi egingo da.



IV. Ezeztapena edo errebokazioa

Zerga Administrazioak bere egintzak errebokatu ahal izango ditu, interesdunen mesedetan, ordenamendu juridikoa modu nabarian hausten dutela uste duenean, norbanakoaren egoera juridikoari eragiten dioten eratorritako inguruabarrek agerian uzten dutenean emandako egintzaren desegokitasuna, edo prozeduraren izapidean interesatuak babesik gabe geratu badira. Edonola ere, errebokazioak ezin izango du zergen arloko arauak onartzen ez duten dispensa edo salbuespenik sorrarazi; ezta berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo antolamendu juridikoaren aurka joan ere.

Errebokazioa soilik gauzatu ahal izango da bidezkoak diren ahalak eta eskubideak erabiltzeko preskripzio-epea edo, kasuaren arabera, iraungipen-epea amaitzen ez den bitartean, hots, lau urtetan.

Prozedura berezi honen hasiera beti ofiziozkoa izango da eta egintza eman zuen organoa berbera izan ahal izango da. Espedientean interesdunei entzunaldia egingo zaie eta, organo eskudunak hala uste izanez gero, egintza errebokatzeko arrazoiari buruz aholkularitza juridikoaz arduratzen den organoaren txostena gehituko da.

Berriazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, prozedura hasteko erabakia jakinarazten denetik hasita, sei hilabetekoa izango da. Epe hori igaro ondoren ez baldin bada berriazko ebazpenik eman, prozedura iraungi egingo da. Edonola ere, prozedura honen bidez ematen diren ebazpenek administrazio-bidea agortuko dute. ere bai. Adinekoena bere horretan dago, eta gazteena jaisten ari da 2006tik.

V. Akats zuzenketa

Berrikuspen prozedura berezi honen bitartez, erreklamazioaren egintza edo ebazpena eman duen organoak akats materialak, izatezkoak edo aritmetikoak zuzenduko ditu edozein momentutan, ofizioz edo interesatuak eskatuta, betiere preskripzio epea igaro ez bada. Zehazki, prozedura honen bidez zuzenduko dira administrazioarekiko diru-erreklamazioetako egintzak eta ebazpenak, espedienteko agirietan okerren bat azaltzen denean.

Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren bidez, zenbatekoan edo egintza nahiz ebazpenaren beste edozein elementutan dagoen okerra zuzenduko da. Berriazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, interesdunak eskabidea aurkezten duenetik edo prozedura ofizioz hasi dela jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita. Berriazko ebazpenik jakinarazi gabe sei hilabeteko epea igarotzen bada, ofizioz hasitako prozedura iraungi egingo da; baina horrek ez du eragotziko gero beste prozedura bat hasteko aukera. Aitzitik prozedura interesdunaren eskariz hasi bada, administrazioaren isiltasunez eskabidea ezetsiko da.

Prozedura honetan ematen diren ebazpenen aurka berraztertze errekurtoa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa tarteratu ahal izango dira.



VI. Bidegabeko sarreraren itzulketa

Bidegabeko sarrerak itzultzeko eskubidea aintzatesten duen prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da, honako kasuetan:

- Zerga-zorren edo zehapenen ordainketa birritan egiten denean.
- Ordaindutako zenbatekoa administrazio-egintzatik edo autolikidaziotik sortutakoa baino handiagoa denean.
- Administrazioaren ahalak erabiltzeko preskripzio-epea edo iraungipen-epea igaro ondoren zerga-zorren eta zehapenen zenbatekoak ordaindu direnean. Ez dira inoiz itzuliko ordaindutako zenbatekoak, baldin eta zenbateko horiek erantzukizunetik salbuesteko erabili badira, borondatezko erregularizazioa burutzeko zehaztutako kasuetan.
- Zergen arloko arautegiak hala ezartzen duenean.

Akatsen zuzenketan bezala, bidegabeko sarreraren itzulketa prozeduraren ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, interesdunak eskabidea aurkezten duenetik edo prozedura ofizioz hasi dela jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita. Hemen ere, epe hori berariazko ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada ofiziozko prozedura denean iraungi egingo da (nahiz eta beste prozedura bat hasteko aukera badagoen), eta prozedura interesdunaren eskariz hasi bada isiltasunez ezetsiko da.

Bidegabeko sarrera gauzatzea eragin zuen zergak aplikatzeko edo zehapenak ezartzeko egintza irmo bihurtzen bada, erabat deusezak diren egintzen berrikuspenaren, egintza deuseztagarrien kaltegarritasunezko deklarazioaren, okerren zuzenketaren edo berrikuspenerako aparteko errekurtsoren bidez bakarrik eskatu edo sustatu ahal izango da itzulketa.

Zergapekoak uste duenean autolikidazioren baten aurkezpenak bidegabeko ordainketaren bat eragin duela, autolikidazio hori zuzentzeko eskatu ahal izango du. Bidegabeko sarrerak itzultzean berandutze-interesak ere likidatuko dira.

Bukatzeko, esan prozedura berezi honetan ematen diren ebazpenen aurka berraztertze errekurtsoa eta administrazioarekiko diru-errekamazioa jarri ahal izango direla

VII. Laburpen-taula

Hurrengo taulan, berrikuspen prozedura berezien ezaugarri nagusienak jasotzen dira: zer aurkaratzeko erabiltzen diren, hori egiteko epea, noren aurrean aurkeztu behar diren eta organo honek ebazteko duen epea.



I. Irakasgaiak

	ZUZENBIDEAN ERABAT DEUSEZA ADIERAZTEA	EGINTZAK KALTEGARRITZAT HARTZEA	EZEZTATZE EDO ERREBOKAZIOA	AKATS ZUZENKETA	BIDEGABEKO SARREREN ITZULKETA
ZER AURKATZEN DA?	<p>Zuzenbidean erabat deusezak kalifikatu ahal izango dira zerga arloan emandako egintzak eta organo ekonomiko-administratiboaren ebazpenak, baldin eta administrazio bideari amaiera eman badiote edo epe barruan errekurtsioa jarri ez bada, kasu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> Konstituzioaren babespean egon daitezkeen eskubide eta askatasunei kalte egiten dietenean. Gaia edo lurraldea dela-eta nabarmenki eskumenik ez duen organoak eman dituenean. Eduki ezinezkoa dutenean. Urraketa penala direnean edo horren ondorioz ematen direnean. Horretarako legez jasotako prozedura edo organo kolegiatuen borondatea osatzeko funtsezko erregelak dituzten arauak erabat baztertuta eman direnean. Lege antolamenduaren aurkako egintza espresuak eta ustezkoak, baldin eta horien bitartez ahalmen edo eskubideak eskuratzen badira, horiek eskuratzeko funtsezko beharkizunak betetzen ez direnean. Foru arau edo lege batean espresuki jasotzen den beste edozein kasutan. 	<p>Zerga Administrazioak herri onurarako kaltegarritzat hartu ahal izango ditu interesatuen alde hartutako egintza eta ebazpenak, baldin eta lege antolamenduaren edozein urraketa egiten badute, geroago administrazioarekiko azuzien bidea haien aurka erabiltzeko asmoz.</p>	<p>Zerga Administrazioak interesatuen aldeko bere egintzak ezeztatu ahal izango ditu, baldin eta irizten badio lege antolamendua nabarmen urratzen dutela, geroago lege egoera partikular bati dagokionez gertatutako arrazoiak egintzaren bidegabetasuna agerian uzten badute edo prozedura tramitatzearan interesatuak babesik gabe geratu badira.</p>	<p>Erreklamazioaren egintza edo ebazpena eman duen organoak akats materialak, izatezkoak edo aritmetikoak zuzenduko ditu edozein momentutan, ofizioz edo interesatuak eskatuta, betiere preskripzio epea igaro ez bada.</p>	<p>Okerreko sarrerak itzultzeko eskubidearen aitorpen prozedura ofizioz edo interesatuak eskatuta hasiko da, kasu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> Zerga zorrak edo zehapenak bi aldiz ordaindu direnean. Ordaindutako kopurua handiagoa izan denean administrazio egintza edo autolikidazio bat dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoa baino. Zerga zorren edo zehapenen kopuruak preskripzio epeak amaitu ondoren ordaindu direnean. Zerga araudiak horrela jasotzen duenean.
HASIERA	Ofizioz eta interesatuak eskatuta	Ofizioz	Ofizioz	Ofizioz edo interesatuaren eskariz	Ofizioz edo interesatuaren eskariz
EGINTZA EPEA	4 urte	4 urte	4 urte	4 urte	4 urte
EBAZPEN EPEA	6 hilabete	6 hilabete	6 hilabete	6 hilabete	6 hilabete
NORK EBAZTEN DU?	Diputatuen kontseiluak	Diputatuen Kontseiluak	Egintza eman zuen organoak	Erreklamazioare egintza edo ebazpena eman zuen organoa	Ahalmena duen organoak